

Irakaskuntzako Hizkuntza Eskakizunak: matrikulazioak 2026ko lehenengo deialdia

Matrikulazioaren datuak Interneteko banakako kontsultan ikus daitezke, <https://ikasgunea.euskadi.eus> helbidean, "Sarbide Proben eskaera eta lehiaketak" aukeran.

Erreklamazioak

Baldin eta matrikulako dokumentazioa osatu behar baduzu, datu okerre bat zuzendu edo matrikularen gaineko beste nolabaiteko erreklamaziorik aurkeztu, adierazitako egunetan egin dezakezu dagokizun Hezkuntza Ordezkaritzan, edo, bestela, webgunean bertan.

Lekuak:

Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Arabako Hezkuntza Ordezkaritza San Prudencio, 18 behea 01005 Vitoria-Gasteiz	Bizkaiko Hezkuntza Ordezkaritza Gran Vía, 85 48011 Bilbao	Gipuzkoako Hezkuntza Ordezkaritza Andia, 13 20004 Donostia

Erreklamazio-epea: 2026ko otsailaren 28tik martxoaren 4ra.

Behin betiko onartuen informazioa: 2026ko martxoaren 18an. Egun horretan jakinaraziko da azterketak noiz eta non izango diren.